



Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

DESKARGATU PDF

Europar Batasuneko estatu kide guztiek nahitaez izan behar dituzte hainbat urteko kontrol-planak, kontrol ofizialei buruzko 882/2004 (EE) Araudiarekin bat.

Araudi hori 2019ko abenduaren 14an indargabetuko da

, kontrolei eta beste jarduera ofizial batzuei buruzko 2017/625 (EB) Araudia argitaratu ondoren.

Kontrolei eta beste jarduera ofizial batzuei buruzko 2017/625 (EB) Araudia

Hemen eskura dezakezu Araudi berriaren edukiari buruzko informazio gehiago:

Berritasunak Elikakatearen Kontrol Ofizialean

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legearekin bat,

Euskadik Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana 2016-2020 garatu eta onetsi du

. Plan berri hori funtsezko tresna da nekazaritzako elikagaien kateko kontrol ofizialak koordinatzeko eta hobetzeko, arlo horretan

eskumenak dituzten agintaritza guztientzako lan-sistema komun bat ezartzen baitu

. Horrez gain, plan horri esker,

bete egiten dira elikagaien segurtasunari eta kalitateari buruzko araudiaren betekizunak.

Planak nekazaritzaren, abeltzaintzaren, arrantzaren eta elikaduraren sektoreei eragiten die

. Europako lege-esparrua eta Administrazio Zentralak ezartzen dituen oinarriak errespetatzen ditu, baina, hori bai, EAEko elikagaien ekoizpen-sistemen errealitatera eta erkidegoko administrazioaren egitura berezietara egokituta dago.

2016ko irailaren 16ko Agindua

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuarena; agindu horren bitartez onetsi egiten da EAEko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana.

Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana 2016-2020

Plan honi bost urteko indarraldia emango zaio (2016-2020), bat egin dezan Europako estrategiekin eta Elikakatearen Kontrol Ofizialerako III. Plan Nazionalarekin.

Estatuko plana:

Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionala (PNCOCA)

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

berri@elika.eus

